



Larunbat honetan  
Andoaingo  
Etxeberrieta  
auzuneko  
belardietan

## Falcons de Vilafranca Urnietan, ikusleak txunditu zituen ikuskizuna

Giza irudiak osatuz, ordura arte Urnietan, ikusi gabeko ikuskizunaz gozatu ahal izan zen aurreko larunbatean.

**K**ataluniako Vilafranca del Penedes herritik Urnietara etorri zen Falcons de Vilafranca taldea. Giza dorre eta harresiak osatzen tradizio handiko taldea da eta egun hauetan hainbat saio eskaini dituzte Euskal Herrian barrena. Besteak beste, Orion, Sopelan, Mungian eta Erriberrin. Urnietan "In Fusioak" jaialdian parte hartu zuten Egape dantza taldearekin batera. Egarperena eta Vilafrancako zapelatzena, biak ala biak, ikusleen




San Juan eguna eta jaiak Cavaldeath ikuskizunarekin amaitu ziren.

begietara ikusgarri bilakatu ziren. Bi saioen lagin bana ikusgai dago Aiurriko webgunean,

bideo eta irudi bidez. Urnietan ezer ez eta festa, dio eserak. Bada, San Juan plazan edota

Saroben izan zirentzat arratsalde gogoangarria izan zen. [URNIETA, 3. ORRIALDEA]



## Zaharrak berrituz X. azoka

Zaharrak berritzearen aldeko hamargarren azoka burutuko da larunbat honetan Andoaingo Zumea plazan. Goizeko 10:00etan zabalduko dituzte azoka osatuko duten 32 postuak; 14:00ak arte zabalik izango da.

Denetik topatu ahal izango du bertaratzen denak: hala nola, jostailuak, liburuak, al-dizkariak, arropa, bizikletak... Andoaingo zein inguruko herrietako jendea animatu da saltzaile izatera egun batez; hain zuzen, postu guztietatik hogeitaz Andoaingo lagun koadrilek nahiz familiek osatukoak dira.

Mahaia jarri ahal izateko inoiz baino eskaera handiagoa jaso dute antolatzaileek, eta pozik agertu dira horregatik. Birziklapenaren filosofia herritarrengan politikopoliki hedatzen ari dela adierazten baitu datu horrek.

Horrenbestez, gero eta herritar gehiago dira etxean jada erabiltzen ez dituzten bigarren eskuko objektuak beste batentzat baliagarri izan daitezkeela pentsatzen dutenak.


## Ontziak tratatu eta berreskuratzeko gunea

Ontziak sailkatzeko Urnietako guneak zortzi tonatik gora birziklatu zituen 2013an zehar.

Aurreko urte osoan zehar zortzi mila tonatik gora jaso zituzten Urnietako gunean eta horietatik %78a berreskuratu egin zen. Birziklapen-tasa positibotzat jo zuen Denis Itxaso San Markos Mankomunitateko presidentek, "estatu mailan tasa altuenetakoa delako". Urnietakoa plastikozko

ontziak birziklatzeko azpiegitura nagusia da. Bertara eramaten dituzte Astigarraga, Hernani, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Usurbilen atez ateko sistemaren bidez bildutakoak, Txingudiko Mankomunitateak jasotakoak eta Andoaindik jasotakoak. Itxasok azpiegitura egokien defentsa egin zuen, "zaborra modu eraginkorrean kudeatzeko irtenbiderik ez eskaintzeak ingurumen-erorkizuna hipotekatzea" dakarrelako.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Ontziak tratatzeko eta berreskuratzeko Urnietako plantak zortzi mila tona ontzi jaso zituen 2013an, San Markos Mankomunitateak emandako datuen arabera.



**(B)** Diru (B)eltza, enplegu (B)eltza



"A" gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOK EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net





## Pirinioetara irteera Eteneta elkartearekin

Uztailaren 12an eta 13an Urnietako talde bat Pirinioetara abiatuko da. Goizeko 06:30etan irtengo dira autobusez, Urnietako anbulatorio zaharreko aparkalekutik. Hauxe da egitaraua: Larunbateko ibilaldia egiteko bi aukera: Candanchu-Ibones de Anayet-Formigal. Formigal-Ibones de Anayet-Formigal.

Afaria, loa eta gosaria El Pueyo de Jacako aterpetxean.

Igandeko ibilaldia: Portalet-Pombieko aterpetxea Pic de Midi D'Ossauko abiapuntua)-Portalet. Bazkaria aterpetxean. Itzulera autobusez, igandean iluntzeko 20:00ak aldera. Izen-ematea 50 euro (40 euro 25 urte azpikoak). 685 722 296 - 629 126 593.

## Edukiontzi horiak ontzi arinentzat



San Markos Mankomunitateak agerraldia eskaini zuen asteartean.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Denis Itxasok Urnietako gunera egindako bisitaldian eskainitako adierazpenetan adierazi bezala, "birziklapen tasaren ehunekoak handitzea birziklapena modu egokian egitea ezinbestekoa da". Honenbestez, edukiontzi horian zer bota daitekeen eta zer ez ondo pentsatu beharrekoa da: "Jendeari buruan ondo sartu behar zaio edukiontzi horian ez direla ontzi arinak ez diren elementuak sartu behar". Izan ere, askok eta askok edukiontzi horia plastikoarekin lotzen dute-

nez, ontziak ez diren plastikozko produktuak bertara botatzen dituztela dio: "Jendeak maiz edukiontzi horia plastikoarekin nahasten du eta plastikozkoa den edozer bota dezaketela uste du. Hori ez da horrela, ontzi arinak sartu behar dira; plastikozkoak, aluminiozkoak, kartoi-zkoak..., baina ontziak".

Ontzi arinak eta errefusa bereiztea beharrezkoa den heinean, ezinbestekoa da errefusa tratatzeko alternatiba ere izatea, "zabortegeiak bezalako irtenbide zaharkitua eta batere iraunkorra gainditu ahal izateko".

## Eskelak, hileta-oharrak Aiurri astekarian

@ diseinua@aiurri.com | ☎ 943 300 732

Edu Muruamendiarazek maisuki zuzentzen duen dantza taldea

## "In Fusioak", Egapekoen dantza erakustaldia



Saroben eskaini behar zituzten bi saioetako lehenengoaren amaierako irudia, ikusleak pare pare txaloka zituztela.

Tentsio batean, izerditan blai zegoen Edu Muruamendiarazekainaren 28an eskaini behar zituzten bi saioen arteko atsedenaldian, "lehen saioa burututa, urduritasunak alde batera utzi ditut. Saioa hasterako tentsio pixka bat zegoen giroan, baina amaitu dugu lehen saioa. Bigarreneko atseden pixka bat hartu, eta aurrera". Goizean dantzari batek behatz txikia apurtu zuen eta azken orduan ikuskizuna burutzeko aldaketak egin behar izan zituzten.

Egape dantza taldeak "In fusioak" jaialdiaren baitan ikasturte amaierako erakustaldia antolatuta zuen Saroben, eta hainbat partaiderentzat saio handi batean parte hartzen zuten lehen aldia zen. Normala da, beraz, urduritasun horiek azalratzea. Azkar uxatu ziren. Ikusleek oniritzia eman zieten eta txalokak neurtuta, ikasturte amaierako nota bikain batekin alderatu daiteke. Aiurrik landu duen bideoan, Aiurri.com gunean zintzilik dagoena, argi ikus daiteke hori. Lehen saioaren amaieran txalo zaparrada jaso zuten, biba eta oihu gehiagorekin batera.

Saioaren izenburuz galdetuta, Egapek iker modura dantza estilo eta joera askoren fusioa lantzen duelako izenburu hori jartzea bururatu zitzaizela aitortu du Muruamendiarazek. "Dantza, musika eta jantzi aldetik estiloak askotarikoak dira. Oinarrian beti ere euskal dantzak izanik. Ikusleek ikusi ahal izan duenez, joera horretan oso dantzari gazteak sartu ditugu. 12 urtetik gorakoak aritu dira gaur taula gainean".

Artalde handia du dantzariak bere esanetara. Sekretuaz galdetuta, hauexek erantzuna: "Ez dakit ondo zein den sekretua. Argi dago gogoz hartu behar dutela, eta Egapeko dantzariak gogo biziz hartu dute nik jarri nien erronka. Gustura hartuz gero, lana errazago egiten da. Eta niretzat dantza hori da, atseginez egiten den zerbait lantzea. Horregatik, gogoz egonik, horrelako ikuskizunak eraikitzen iristen gara".

Urteak dira Edu Muruamendiaraz Urnieta aldera etorri zenetik, eta dagoeneko ezaguna da berak eta bere taldeak eman dezaketena. "Exigentea ere banaiz, emaitzak ikusteko dantzarien gainean egon behar da. Nire buruarekin oso zorrotza naiz, eta dantza irakasle bezala berdin. Dantza ikaragarri maite dut eta

*Egapeko dantzariak gogo biziz hartu dute nik jarri nien erronka. Gustura hartuz gero, lana errazago egiten da. Eta niretzat dantza hori da, atseginez egiten den zerbait lantzea"*  
Edu Muruamendiaraz

hori transmititzen ahalegintzen naiz". Ahalegindu, eta baita lortu ere. Dantzariak dena eman zuten eta ikusleek, begiak zabalzabalik, haien mugimenduak jarraitu zituzten.

Bi saioen artean Falcons de Vilafranca taldekoek San Juan plazan ikuskizun ezberdina landu zuten, castellersen moduko giza irudiak sortuz. Hura ere ikusgarria izan zen, begiak eta ahoa zabalzabalik uzteko modukoa.



Lehen saioaren amaierako zatia www.aiurri.com gunean ikus daiteke.



“IN FUSIOAK” JAIALDIAN EZUSTEKO ATSEGINA

# Giza harresi ikusgarriak

Minutu gutxitan gertatu zen dena. Autobus batek Katalunia aldetik zekarren taldea Jakutegi plaza ondoan geratu, Sarobeko kanpoaldean jantziei azken ukituak eman eta azkar batean San Juan plazara

hurbildu ziren ikusleak harri eta lur utzi zituzten. Zerura begira jarri zituzten denak, eta zerua eta lurraren artean gizakiez eraikitako dorre eta harresi ikusgarriak.

**B**ertan izan ez zenak irudiotan ikusten denari ez dio behar bezalako neurria hartuko. Irudiekikusgarritasuna izanik ere, norberaren begiekin *Vilafrankako zapelatzen* egin zutena ikustea esperientzia zirraragarria izan zen. Emoziorik ere ez zen falta. Figura ezberdinak osatzeko garaian, giza ilarak erantsi ahala oreka ez galtzeko ahalegina handia eta ikusgarria zelako. Urduritasuna bertakoen kontua zen, Kataluniatik etorritako kideen artean lasaitasun eta patsada handia nabari zelako. Eta hala eta guztiz ere ikusleak urduri jartzea lortu zuten. Bereziki, kasko beltza jantzita zeraman haurtxoa inolako segurtasun neurririk gabe gora eta gora zihoala ikustean. “In fusioak” jaialdiaren baitan, Egape dantza taldearen bi saioen artean, **Falcons de Vilafranca** taldeak sekulako erakustaldia eskaini zuen. Falcons edo zapelatzen ekartzeko ideia izan zuenari zorianak eman behar zaizkio inguru hauetan sekula ikusi gabeko ikuskizuna ekarri zutelako. Pena, eta galanta, plazara hurbildu ez zirena da.





## Bertso afaria Urnietan larunbat honetan



Ander Beristain eta Peio Lozano.

**Aunitz bat** plataformak antolatu duen ekimenetako bat da afaria. Aunitz bat herritarrez osatutako taldea da, 2013ko ekainean Jon Lizarribar eta Ruben Genbeltzuren atxiloten ondorioz sortutakoa. Ander Beristain eta Peio Lozano taldekideek azaldu dutenez, Euskal Herriaren bake prozesua aurrera joan dadin hainbat bultzada emateko sortu zen taldea. Bultzada horietako bat izango da uztailearen 4rako antolatutako afaria. Besabi jatetxean izango da eta Amets Arzallus eta Sustrai Colinarene bertsoek girotuko dute afari ondorena.

Jon eta Rubenen egoera ardatz harturik, espetxean hamar hilabete pasa dituztela esan nahi dute afari honen bidez: "Jon eta Ruben 2013ko ekainean atxilotu zituzten, hainbat ekintza larriren akusaziopean. Hiru egunez Guardia Zibilaren esku egon ondoren, espetxeratu

egin zituzten. Hamar hilabetez Soto del Real eta Jaengo espetxean egon dira, horrek suposatzen duen sufrimendu jasangaitzarekin. Prozesuak oraindik martxan jarraitzen duela esan beharra dago. Gaur egun epaiketaren zain daude eta berehalako kausaren artxibatzea eskatzen dugu".

Afarira joan nahi duenak txartelak salgai izango ditu Kanto, Xauxar eta Besabi jatetxeetan. Edonola ere, prozesu judizialak eta dispartsoak eragindako gastuei aurre egiten jarraituko dute aurrerantzean ere. Alde batetik, hitzaldiak, solasaldiak eta gai politiko eta sozialen inguruko hausnarketak egingo dituzte. Bestetik, zozketak eta diru bilketak egiteaz gain, kontu-korronte baten bidez ere jasoko dute laguntza. Zenbakia honakoa da:

Laboral Kutxa:  
ES51-3035014813 1480030365

Urnietako Gaztelekuko hezitzaileekin solasean

## Gazteek udako jardueretan parte hartzeko gonbitea



Udabenturan edo Gipuzkoa argazkietan ekimenetan izena emateko epea oraindik zabalik dago.

**H**aur eta gaztetxoek ez dute aspertzeko denborarik izango uztaileko hilabeteetan, izan ere, gaurtik hasita ekintza ugari antolatu dituzte Urnietako Gaztelekuko hezitzaileek hilabetearen amaierara arte. Kristina Ruiz eta Jon Ander Areses dira haurren zaintza eta ekintzen antolaketaz arduratzen direnak. Kristinak udako ekintza guztien xehetasunak eskaini dizkio Aiurri.

### Zein ekintza antolatu dituzue?

**Kristina Ruiz:** Lehenengo bi asteetan tailer ezberdinak egingo ditugu: Henna tatuaiak, bonboi kutxak, fimo tailerra, makilaje tailerra... Irteera bat ere egingo dugu Irungo Skate parkera. Tailer hauei amaiera emateko amaiera festa antolatu dugu uztailearen 9rako. Egun horretatik aurrera, ekintza itxiak egongo dira; Udabentura astea, uztailearen 14tik 18ra eta Gipuzkoa argazkietan astea, uztailearen 21etik 25era.

Udabentura astean Gaztelekutik kanpoko ekintzak egingo ditugu: Hernaniko igerilekura irteera, zutikako paddle-a, Donostitik Oriora ibilbidea Donejaketik, irlara irteera eta piraguismoa. Azkeneko astean, aldiz, argazki lehiaketa moduko bat egingo dugu. Hondarribi, Orio eta Zumaiara joango gara eta irteera turistikoak izango dira, haurrek argazkiak atera beharko baitituzte. Azken egunean argazkiak ikusi, aukeratu eta sariak banatzeko festa egingo dugu.



Kristina Ruiz.

### Nork hartu dezake parte ekintza horietan?

**K.R.:** Lehen Hezkuntzako hiru garren mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila artekoentzat antolatzen ditugu. Hala eta guztiz ere, egia da txikiak gehiago animatzen direla. Izan ere, 15-16 urte inguruko haurrek ez dute hezitzaileon beharrik irteerak egiteko. Ekintza bereziagoak nahi izaten dituzte, eta gainera, txikiak joatea ez zaie gustatzen. Guztiekin asmatzea zaila da eta ondorioz, programaketa ezberdinak egitea pentsatu dugu, beraiek ere parte hartu dezaten. Izan ere, merezi dute eta beraientzat ere bada zerbitzu hau.

### Zer egingo duzue, orduan, zaharrentzat?

**K.R.:** Uztaileko ekintza horiez gain, hirugarren mailakoentzat Oretara irteera antolatu dugu uztailearen 10ean. Oretarako aterpetxera joango gara lo egitera. Bereztasun nabarmenena antolaketa guztia beraien esku dagoela da, hau da, beraiek ari dira aurre-prestaketa guztia egiten: aterpetxea non dagoen ikus-

*"Tailerrak Gaztelekuan izango dira eta doan dira; beraz, nahikoa izango dute Gaztelekura etortzearekin"*

ten, nola joango garen erabakitzen, zer jango dugun adosten... Erabakiak hartzen eta taldean lan egiten ikasiko dute modu horretara. Beraien irteera da eta beraien gustura ari dira dena antolatzen. Gainera, oso motibatuta daude, beraien esku dagoelako dena.

### Zer egin behar dute haurrek ekintzetan parte hartzeko?

**K.R.:** Tailerrak Gaztelekuan izango dira eta doan dira; beraz, nahikoa izango dute Gaztelekura etortzearekin. Hala eta guztiz ere, komenigarria da aurrez izena ematea, guk antolaketa egoikiagoa egin dezagun. Udabenturan edo Gipuzkoa argazkietan asteetan parte hartu nahi badute, ordea, izena eman eta ordainketa egin beharko dute. Epea pasa da jada, baina plaza batzuk libre geratu direnez, oraindik aukera dago izena emateko. Gainera, azkeneko asterako taldea oraindik ez da osatu, baina espero dugu egun hauetan gazteak animatzea.

### Zein mezu helarazi nahiko zenieke haur eta gaztetxoek?

**K.R.:** Haurrei animatzeko esan nahiko nieke. Gurekin aukera dute kanpora joateko, ekintza berriak egiteko, bestela egiten ez dituztenak egiteko... Parte hartzera animatu nahi ditut, oso ondo pasako dute eta.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



## BIHOTZKO ARAZOAK DITUZTEN HAUR ETA GAZTEAK

# Tupadaz taupada

Andrea Corman andoaindarrak eta Estibalitz Aldayturriaga hernaniarra bihotzarekin lotutako arazoren batekin bizi dira txikitatik. Bizimodu ahalik eta nor-

malena egiten saiatzen dira, nahiz eta maiz igaro behar izan ebakuntza-gelatik. Santiagoko bidearekin lotutako egitasmoa prestatzen ari dira irailerako.

## Zein da zuen kasua?

**Estibalitz Aldayturriaga:** Bihotzeko arazoekin jaio ginen. Nork bere kardiopatia mota jakin bat dauka. Bakoitzak bere tratamendua jarraitu behar izaten du (operazio kirurgikoak, botika hartzeak egunero...). Arterean, niri, hiru ebakuntza egin dizkirate Gurutzetako ospitalean, eta eguneko pilula bat hartu behar izaten dut.

**Andrea Corman:** Nire amaren sabalean nengoela jada kardiopatia antzeman zidaten. Niri bost ebakuntza egin dizkirate oraingoz, denak Madrilen, eta eguneko hiru pilula hartzen ditut.

## Ebakuntza askotxo dira, ala?

**A.C.:** Bai, baina beharrezkoak izango dira. Gertatzen da geure bihotzarentzat mesedegarririk diren arren, gero beste zenbait gaixotasun sortzeko arriskua egoten dela.


## Bizimodu mugatu samarra egin beharko duzue...

**A.C.:** Etxezula pentsa! Ahalik eta bizimodurik normalena egiten saiatzen gara. Mota guztietako kirolak praktika ditzakegu, beti ere gure gaitasun fisikoko muga non duten jakinda... Adibidez, txikitan, gimnasia erritmikoa egiten nuen, lehiaketen dinamikan ere murgildu nintzen, baina behin lehen ebakuntza egin zidatenean kirol horretatik erretiratzeko agindu zidaten, zer gerta ere...

Azken batean, pertsona bakoitza mundu bat den bezala, nork bere bihotzeko gaixotasuna dauka. Hortik aurrera, ez dakizu ziur non daukazun mugak. Arazoekin elkarbizitzaren ikasten da, eta eguneko egun ezagutzen goaz norberak izan ditzakeen mugak.

**E.A.:** Lehengo batean, adibidez, lagunekin Adarra mendira abiatu nintzen. Ondo nindoan tipi-tapa, baina erdibidean, hor non sentitu nuen halako nekea; atsedean txikia hartu, ura edan eta jarraitu nuen besteekin, normaltasunez.

Edozein gazte egiten dituen gauzak egiten ditugu kasik. Terrorezko edo suspentsezko filmak ikusi, atrakzio parkeetako zenbait jokoetan parte hartu



Andrea Corman eta Estibalitz Aldayturriaga egunero ari dira prestatzen, Santiagoko bidearekin lotutako egitasmoa egin ahal izateko.

*“Arazoekin elkarbizitzaren ikasten da, eta eguneko egun ezagutzen goaz norberak izan ditzakeen mugak”*

Andrea Corman

eta besteetan ez... Begi bistara, beste edozein gazterengandik desberdintzen gaituena gorputzean dauzkagun orbanak dira.

## Zuena gaixotasuna arrarotzat har al daiteke?

**A.C.:** Ez gara ugari, baina guzuzen ez da arrarotzat hartzen. Dakigularik, Andoainen adibidez, bi urteko haur batek antzeko patologia dauka.

## “Menudos Corazones” elkarte-kideak zarete. Zein helburu du elkarteak?

**E.A.:** Espainia osoan funtzionatzen duen elkarte bat da, eta kardiopatiako arazoren bat daukaten seme-alaben gurasoei laguntza eskaintzen die, psikologikoki, ekonomikoki, logistikoki... Kardiopatia ez da arazo kirurjiko hartu behar soilik, eta horrexegatik, familiei era guztietako adituak eskaintzen saiatzen da (fisioterapeutak, logopedak, psikologoak, udalekuetako begiraleak...).

## Udalekuak antolatzen ditu elkarteak...

**A.C.:** Gure ezaugarriak daukaten umeei zuzendutako udalekuak dira, bai Madrilen eta baita Mallorkan zein Benicassimen. Guk txiki-txikitatik parte hartu izan dugu horietan; begirale gisa ere ibilitakoak gara, behin adin batetik aurrera. Ondo pasatzen da bertan, eta neurri edo ohitura batzuk nola hartu ikasteko ere baliagarri izaten da.

## Azken aldian Andoaingo azoketan mahaia jarri izan duzue; gozogintzako produktu bitxiak jarri dituzue salgai...

**E.A.:** Bai. Diru pixka bat bildu nahi dugu, Donejakue bidearekin lotutako proiektu batean murgilduta baikabiltza. Hain zuzen, irailaren 7an abiatuta, Donejakue bidearen zati bat, Galiziako parteari dagokiona, egin nahi dugu talde giroan. Ehun eta hamalau kilometroko ibilbidea izango da eta 25 lagun animatu gara horretarako, bihotzeko arazoak dauzkagun 18 urtetik gorako gazteak denak ere.

**A.C.:** Bidaia berezia izango da; nork bere azterketa pertsonala egin ahal izango du, eta jakin non dituen gaitasunak, non mugak, e.a. Logistika berezia eramango dugu atzetik,

*“Trailean bihotzeko arazoak dauzkagun adin nagusiko 25 laguneko taldea Donejakue bideko zati bat egitera animatu gara”*  
Estibalitz Aldayturriaga

dena ondo aztertzeko... Informazio gehiago Facebook-en dator (jovenes con cardipatias caminado a Santiago).

## Medikuntzarekin lotutako ikasketak egiten ari zarete biak ere. Ez da kasualitatea izango...

**A.C.:** Medikuntza ikasten ari naiz.

**E.A.:** Nire kasuan, osasungintzako agiritzia izan da. Goi mailako zikloa da eta ospitaleko artxibategietan lan egiteko prestatzen du.

Egia esan, ez da, ez, kasualitatea bihotzeko gaixo gazte askok hortik bideratu nahi izatea euren ikasketak. Txikitatik ohitu gara ospitaleratzerara, eta ongi asko ezagutzen ditugu bertako medikuak eta erizainak. Gure bigarren etxea da ospitala! Konturatu gaudela osasungintzako profesionali esker bizi gaitela, haien arretari esker daukagula daukagun bizi kalitatea, eta esan daiteke barru-barrutik irteten zaigula antzeko arazoekin datozen haurrei laguntzeko joera...



Jaiaren sustatzaileak Etxeberrietako belardietan.

## Belardian egitekoa zen jaia, larunbat honetan

Maiatzaren 31rako iragarrita zegoen “Udaberria zelaian” belardietan ospakizuna egiteko ekimen berritzailea bertan behera geratu zen eguraldiaren aurreikuspenak oso txarrak zirelako. Ez zuten hutsik egin, eta udaberri girokoa baino gehiago, udazken giroko asteburua izan zen.

Jaiaren antolatzaileek ospakizuna beste baterako utziko zutela iragarri eta aste gutxira, bigarren saiakeraren berri eman dute. Larunbat honetan izango da, uztailaren 5ean. Etxeberrietarek zelaia erbiltzeko gonbitea luzatu nahi dute, denonaz ere eta denek erabiltzeko aukera dutenez.

Aurreko ospakizuna iragartzeko antolatzaileek adierazitakoa berriro gogora ekartzea ez dago sobera. Maiatzaren hasieran adierazi zuten, egun horretarako arau bakarra belardiaz disfrutatzea da. “Festa honek aldarrikapen bat egin nahi du, zelaia hauek oinezkoentzat ere izan daitezke”, zioen Jone Larrañaga auzokideak.

Bada beste helburu bat, Andoni Etxezarretaren esanetan, “programak ez du helburu handirik, belardiaz disfrutatzea soilik. Oso ekin-tza xumeak egingo dira; haurrak eta helduak elkartu, eseri, afaldu, hitz egin, egon...”. Horrenbestez, zelaiaz disfrutatzearen filosofiarekin etorri behar dute gerturatu direnak.

Larunbateko festaren ondoren zelaia betetzen bada, antolatzaileek helburua betetzat joko dute.



## SANPEDROAK 2014

# Inoiz baino gehiago, Gora Kaletxiki

Sanpedroak kaletxikitar bakoitzak bere barrenean duen auzoarekiko harrotasuna ateratzeko aproposak dira. Auzotarrek bereziki auzoa eta Ama Kandida maite dituzte, biak ere gogo biziz.

Aurten auzoa eta santua goratzeko hitzordurik ez da falta izan. 2014ko jaietan, ordea, protagonismo berezia hartu du Gora Kaletxiki txarangak. Sortu zeneko hamargarren urteurrena ospatu zuten.

**G**ora Kaletxiki auzoa, jaietan maiz entzuten den esaldia da. Esaldia izen bilakatu da auzoan sortu zen txarangaren kasuan. Eta aurtengoa jaietan esan nahi berezia hartu du Gora Kaletxiki txarangak, sortu zeneko hamar urte bete baitira. Igandean kalejira egin zuen auzoan barrena, plazara iritsi aurretik. **Joxe Ramon Berrondok** sorrera gogoan izan zuen taula gainetik eskaini zuen hizketaldian: "Gutako batzuk Jesus Ibañezen deia jaso genuen, auzoan aritzeko. Etorri ginen, eta baita gustura egon. Hurrengo hiru urteetan etortzen jarraitu genuen eta orduan talde hau egituratzea erabaki genuen. Modu finkoan entsetzen hasi ginen horrela. Oholtza gaur egun beteta dago, asko garen seinale. Hiru belau-naldiren topagunea da gurea. Gure helburua Andoain musikaz alaitzea da, horregatik festa gehienetan parte hartzen dugu".

Sei musika doinu osaturiko kontzertua eskaini zuten taula gainean. Andoaingo ereserkia eskaini aurretik, txaragako kideek **Jesus Mari Ibañez** eta **Fernando Uribealgo** omendu zituzten. Txarangaren bi zuta-beak dira, bata lehendakaria eta bestea zuzendari musikala. Haien aldeko hitzak eskaini zituzten, eta ikusleek txalo zaparradarekin erantzun zuten. Oroigarri bana oparitu zizkieten, gertuko senitartekoen eskutik. Amaitzeko, **Joxe Mari Oiarzabal** musikariak sorturiko bertsoa abestu zuten.

Omenaldi ekitaldia izan zen aurtengo jaietan oroitu den hitzorduetakoa. Gainerakoan jaietan interes handia pizten jarraitzen du sagardo lehiaketak edota elkarten arteko desafioak.

Auzoa txikia izanik ere, festa handiak dira. Gora Kaletxiki oihu klasikoa entzuten jarraituko da urte osoan zehar, 2015eko sanpedroak iritsi ahala geroz eta ozenago entzuterira iritsi arte.



Gora Kaletxiki txaranga, kalean behera.



Olagain txistulari taldeko kideek bidea ireki zieten Kandido eta bere txikitxoak.



Kandido eta bere txikitxoak, Goikoplazatik Kaletxikira ohiko ibilbidea eginez.



Auzoko jaietan festazaleak bezain garrantzitsuak dira lanean aritzen diren lagunak. Festazaleak, antolatzaileak eta laguntzaileak guztiak ere ezinbestekoak dira. Argazkietan ikusten denez, gainera, lan egitea egokitu zitzaizen guztiak pozik aritu ziren.



SANPEDROAK 2014



Pilota txapelketan aritu ziren haur eta gaztetxoak, antolatzaileekin batera.



Lasterketa abiatu aurretik ibilaldi neurtua egin zuten.



Soka-dantza, auzoko eta Urki dantza taldeko kideen parte hartzearekin.



Kaletxikiko lasterketan nabarmendu ziren kirolariak.



Gora Kaletxiki txarangaren hamargarren urteurreneko ospakizunean bi sustatzaile nagusiak omendu zituzten, Jesus Mari Ibañez eta Fernando Uribealzo.

Gora Kaletxiki txarangako kide-ek bi sortzaileak omendu zituzten.  
 "Mila zorion musikarentzat ai zate ematen zuen urterik onenak. Musikarekin lortu dituzue arrakasta nabarmenak. Musikarekin gozatuz beti zorionak eta penak. Sariak eta omenak ondo mereziak denak, ondo mereziak denak. Egin dituzuen lanak dira ordain ezin daitezkeenak. Mila zorion Jexux Mari ta Fernando ta esker beroenak".



Ama Kandida, auzokideen eta auzotarren zaindaria. ©Sara Gomez



Sagardozaile ugari dago Andoainin. ©Kaletxiki



Ontzak irabazi zuen desafioa. ©Kaletxiki



RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK

# Berriako kazetariak nagusi Rikardo Arregi sarietan

Euskarazko egunkariko kazetariak nagusitu dira Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren azken edizioan, aurreko larunbatean Basteron buruturiko ekitaldian. Berria egunkariko lan taldeak eskuratu zuen Sari

Berezia, "GAL 30 urte" multimediatiko lanagatik. Berriako kazetari den Garikoitz Goikoetxea Kazetaritza Berria saria, eta azkenik, Beñat Zamalloa freelance kazetariarentzat izan zen Sari Nagusia.

**E**ider Goenagak koordinatutako Berria hedabidearen lan taldeak eskuratu zuen epaimahaiaren Sari berezia, webgunean abian jarritako "GAL 30 urte" izenburupeko lanagatik. [www.berria.info](http://www.berria.info) gunean GAL-en historia kontatzen da, atalez atal: atentatuen zerrenda, kronologia, hemeroteka, elkarrizketak... Epaimahaiaren iritziak, lan mardula da, "noiz-bait egin behar zena, kazetaritzak gizartearekiko konpromiso irmoa baitu: gertatukoaren irudi poliedrikoaren berri ematea, herritarrak egiara hurbilduko dituen". Multimendian egindako saiakera interesgarria ontsi zuten.

Eider Goenagak jaso zuen saria, taldearen izenean. Berriki zendu den Aitor Renteria "Txato" kazetaria ekarri zuen gogora. Renteriarekiko zorra kitatzeko beharra adierazi zuen. "Lan honetan zutabe garrantzitzua izan da Txato. Azken batean, erabateko inplikazioa eduki du egitasmo honetan. Ihes egin behar izan zuen 80ko hamarkadan; GALen garaia zuzenean pairatu behar izan zuen, eta lagunak atentatuetan nola hiltzen ziren ikusi zuen". Epaimahaiak ere Renteriaren "luma zorrotz eta jantzia" omendu nahi izan zuen.

Garikoitz Goikoetxea elduaien-darra nabarmendu zuen epaimahaiak 27 urtetik beheko kazetari zuzentzen zaien sariaren atalean. Berria egunkarian, Harian atalean Goikoetxeak osatu zuen biztanleriaren inguruko erreportai saila aipatu zen horretarako. Datu kazetaritzaren adibide eredu-garria saritu nahi izan zen, "era horretako datu-bilketa balioan jartzeko garaia iritsi baita. Lehenengo kolpean gaia idor samarra suerta dakiok irakurleari, baina jorratu duen moduak interesgarri, argi eta erraz bilakatu du". Datuen tratamendua ere goretsi zuen, "zorrotza datuak emateko unean, baina irakurtzeko eta inter-



Patxi Baztarrika, Eider Goenaga, Garikoitz Goikoetxea, Beñat Zamalloa eta Ana Carrere sari-banaketa ekitaldiaren amaieran.

pretatzeko errazak izatea lortu du".

Azkenik, Beñat Zamalloak jaso zuen Sari Nagusia, bertso-lari txapelketari 2013ko irailetik abendura bitarte egindako jarraipenagatik, eta horretarako hainbat genero landu izanagatik zenbait hedabideetan. Hain zuzen, aipatzekoa da Zamalloaren ekoizpen jorritasuna: Berria egunkarian erreportaje eta kronika ugari, Berria TBn bertsolarietako elkarrizketak, Akordua blogean protagonisten esana eta gogoetak, Bizkaia Irratian Puntua izeneko irratsaio berezia, Hamaika Telebistan Oholtzapea saio berezia, Radio Vitorian Errota irratsaioa, Twitterren unean uneko informazioa, ikus-entzunezkoak bertsolarien elkarrizketekin...

Kazetaritza espezializatuen aldeko apustua eginez emaitza bikaina lortu izana azpimarratu zuten epaimahaiak. "Irakurle zein entzule ororengana iristeko, lehiaketaren ikuspegi osatua, koherentea eskaini du, enfoke ezberdina jorratuz: protagonistak, giroa..., periferiaren ikuspegiak muinera eraman gaitu".

## MEZUZ BETERIKO EKITALDIA

Ainara Rodriguez euskara zinegotziak eta Arantza Aguado Udal euskara teknikariak, eta Allande Boutin, Idure Eskisabel, Goio Arana eta Marijo Deograciasek osatu dute aurtengo epaimahaia.

Kike Amonarrizek aurkeztu zuen ekitaldia, eta Ana Carrere Andoaingo alkateari eman zion hitza, lehenengo eta behin. Ekitaldira bertaratu ziren guztiei ongietorria eman ostean, ezinbestekotzat jotzen dituen bi ideia zabaldu nahi izan zituen. Lehendabizikoa, "euskaraz bizi nahi dugula" aldarrikatu nahi izan zuen. Desio hori egiaztatzeko bidean, erakunde publikoak hartu zituen ahotan: "Bada garaia ardurak publikoak dugun ordezkariok premisa hau lau haizetara zabaltzeko. Esan beharrik ez dago prentsak, irratiak, telebista eta azken aldiaren eskura ditugun tramankulu teknologikoei zenbateko lekua betetzen duten egungo jendartearen. Mundua ulertzeko lagunduko digun euskarazko informazioa behar dugu. Honenbestez, euskaraz aritzen zireten hedabideei ahal ditugun baliabide

guztiak -batez ere ekonomikoak- zuzen eskura jartzea ezinbestekoa da".

Euskal hedabideei zuzendu zient bigarren ideia, "munduan gertatzen dena kontatzea, jakinaraztea da zuzen egitekoa, eta euskaraz egiten duzuen heinean -txingurri baten eran-, izugarria da egiten ari zaretena. Euskal Herri euskalduna ulertzeko zimentuak eraikitzen ari zarete, eta beraz, jarrai ezazu lan horretan!".

Eusko Jaurlaritzari eskerrak eman zizkion mintzaldiaren amaieran. "Eskerrak sariketa hau posible egiten duen laguntza emateagatik. Urte urte horrekin kontatu dugu, eta espero dugu etorkizunean ere elkarlanean jarraitzea".

## KRITIKAK ERAKUNDE PUBLIKOEI

Bidean laguntzaile izan dituzten pertsonekin esker oneko azaltzeaz batera, euskal kazetaritzak bizi duen kinka larria izan zuten mintzagai Garikoitz Goikoetxeak zein Beñat Zamalloak. Alde horretatik, erakunde publikoei begira jarri ziren, kritika egiteaz batera, elkarlanean gonbitea luzatuz.

Honako mintzaldia egin zuen

Goikoetxeak: "Badakigu krisian gaudela eta, egokitu beharra daukagula euskal hedabideok; badakigu jende gehiagorengana iritsi behar dugula, eta saiatzen ari gara horretan. Baina ahalegin bera eskaitzen diet beste batzuei ere. Uste dut adostasuna lortzeko garaia dela. Euskarak berak eskatzen digula elkarri ateak irekitzen hasia. Euskararik ez daukaten begietan eta belarrietan mespretxua eta desinteresa asko dabil, eta bereziki mingarria egiten zaigu mesprexu hori. Garaia da euskalgintza sozialaren eta administrazioaren artean josten hasteko, eta ez dira liskarrari ekiteko garaiak. Euskal hedabideak ari gara sare batzuk josi nahian, hor dago Hekimen egitasmoa eta baita beste zenbait ekimen ere. Eutsi diezaiozun horri eta ez gaitzen elkarren kontra mokoka jardun. Sinetsiezadazue horren berri pozarren emango dugula euskaraz ari garen kazetari guztiok".

Zamalloak, bere aldetik "Erakunde publikoek herri ekimeneko hedabideak behar adina eta behar moduan ez babesteak" galdera sortzen ziola, aitortu zuen. "Herri ekimeneko hedabideek ardurak publikoak betetzen duten kazetaritzaren funtzio publikoa aintzat hartuta, nolako herritarrak nahi dituzte agintari politikoek? Euskaldunak nahi ote dituzten izan liteke lehen erantzuna eta jarrai lezaketek galdera erantzun ditzaketek izkin guztiak erantzuten. Zintzoki eta erantzukizun publikotik. Kezka aspaldikoa denez, dagoeneko ondorioztatu dugu aurrera egiteko jarrera ez dela nahikoa, hedabideak uneoro ari direlako baliabideak muturreraino eramaten (txapelketan kasu), uneroro ari direlako berritzen eta gizartearen abidura egokitzen. Besteak beste, herri ekimeneko hedabideak behar eta beharko ditugu etorkizunean euskal kulturaz ize-nondorik gabe ari gaitzen nahi badugu bederen".



RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK

# “Hedabideen erronka ere haztea izan behar da”

Sari-banaketa ekitaldian Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Sailburuordeak hedabideen sektorearentzat mamitsuak diren adierazpenak egin zituen. Anbizioz jokatzeko deia egin zien hedabideei,

autokonplazentzia alde batera utzita. “Eduki berriak eskaintzea da bidea, erronkak ere berriak baitira. Gauza berberak egiten emaitza berberak lortuko ditugu, eta ezin gara horrekin konformatu”.

**N**iretzat pozgarria da ekitaldi honetan parte hartzea, bi motiborengatik. Batetik, Rikardo Arregi kazetaritza sariaren ekitaldi nagusia delako eta, bestetik, uzten didazuen bitartean niretzat hartzen dudan Andoainen nagoelako lagunartean.

Ezertan hasi baino lehen zorionak saridunei: Eider Goenaga eta bere taldeari, Garikoitz Goikoetxeari eta Beñat Zamalloari. Eta eskerrik asko epaimahaikideei, zuen lan zailagatik.

Nik ere epaimahaiaren sari berezian egin duzuen omenezko aipamenarekin bat egin, eta Aitor Renteria kazetaria, Txato, oroitu nahi dut. Elkarrenganako begirune handiko harremana izan genuen Txatok eta biok. Azkenekoz, bera zendu baino bizpahiru aste lehenago egonak ginen, *Iparaldeko Hitzarako* eta hango euskarazko beste hedabideetarako ere egin zidan/egin zidaten elkarriketa luze eta atsegin bat tarteko. Bego jasota nire aldetik ere, Txato kazetari ekainaren aitormenezko oroitzapen hunkitua.

Kazetaritza Sari Nagusi honen testuinguruan, euskarazko komunikazioaz gogoeta bat partekatu nahi dut zuekin. Hil ala bizikoa da euskararentzat hedabideetan nor izatea. Joan den asteartean aurkeztu genuen, lehendakaria buru zela, legealdi honetako Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Agenda Estrategikoa. Eta hor toki propioa du, jakina, euskarazko hedabideen jardunak.

Arlo honetan ere, nire ustez, arrakasta izateko gakoetako bat elkarlana da, herri-erakundeen eta hedabideen arteko elkarlana. Eta lankidetzari hori arrakastatsua izateko gakoetako bat da, bakoitzak dagokion eraginkortasunez betetzea. Gure iritzian, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egiteko nagusia arlo honetan da, komunikazioaren euska-



Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

*“Garbi esanda: ez gara konformatzen euskararen presentzia bermatzearekin; euskarazkoaren kontsumoa areagotzen eragin nahi dugu”*

razko kontsumoa sustatzea. Garbi esanda: ez gara konformatzen euskararen presentzia bermatzearekin; euskarazkoaren kontsumoa areagotzen eragin nahi dugu. Konbentzimendu bat dugu oinarrian: arlo honetako hizkuntza politikaren erdigunean, jarri, erabiltzailea, kontsumitzailea, euskarazkoaren kontsumitzailea eta kontsumoa jarri behar direla. Produktuaren kontsumoa (erabiltzaileak erabilia izatea, alegia), produktuaren beraren (eskaintza hutsaren) aurretik. Kontsumitzaileen apetak asetzen dituzten komunikazio-produktuak, irakurle eta ikusentzuleen leialtasuna irabazten dutenak, eta irakurle eta

ikus-entzule potentzialak erreal bihurtzen dituzten komunikazio-produktuak sustatzea da hizkuntza politikaren ikuspengitik eraginkortasunez aritzeak eskatzen diguna.

Joan zen ostegunean kalera-tu genuen euskarazko hedabideentzako Jaurlaritzaren 2014ko diru-laguntza deialdia, nahi eta behar baino beranduago. Jaurlaritzak diru-laguntzen erreminta dauka euskarazko hedabideak eraginkorrerago egiten laguntzeko. Urte asko pasatu dira, eta euskararen errealitatea asko aldatu da, asko, lehen aldiz diruz lagundu ziren proiektu haietatik. Gaur inoiz baino euskaldun gehiago gara, gehienak 35 urtetik beherakoak; erabileraren hazkundera eredu formaletan gertatu da bereziki, eta esaterako selektibitatea %68k egin du euskaraz; familia gehienetan badago euskaldunen bat gaur... Horiek liriateke euskarazko hedabideen bezero berriak.

*“Agerikotasunari batere garrantzirik kendu gabe, egiten denak euskararen erabilerarako zer-nolako eragina duen da gaur interesatu behar zaiguna”*

*“Ez dira garai errazak hedabideentzat ere, baina euskararen ezagutza hazi eta hazi ari delarik, hedabideen erronka ere haztea izan behar da”*

Euskararen errealitate berriaren eraginez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburuak ere egokitu egin dira. Eta uste dut hedabideen jarduna ere aldatzen joan beharko dela errealitate berri-eragokitzeko, bezeroengana gerturatzeko eta bezeroak irabazteko, are gehiago bezero potentzialak hazten ari diren-ari. Agerikotasunari, eskaintza handitzeari, presentzia markatzeari lotuak zeuden lehen erronkak, baina bereziki erkidego honetan (bestelakoa da Nafarroa edo Iparraldeko egoera), pauso bat harantzago egin beharrean gaudela esango nuke.

Agerikotasunari batere garrantzirik kendu gabe, hizkuntza politikaren ikuspuntutik, egiten denak euskararen erabilerarako zer-nolako eragina duen da gaur interesatu behar zaiguna. Hori da eraginkortasunaren ikuspuntua. Ikuspuntu horretatik landu da atera berri den diru-laguntzen deialdia. Handia da egiten den diru ahalegina: 4.875.000 euro. Ez dugu ezagutzen inongo hizkuntza biziberritzeko prozesutan tamaina horretako ahalegin proportzionalik, ez dugu ezagutzen inon ere. Eta ahalegin horrek inpaktua bermatzeaz gain -edo gehiago- kontuan hartu behar du kontsumorako eraginkortasuna. Kontuan izan beharko genuke autokonplaziente izan gabe eduki berriak eskaintzea dela bidea, erronkak ere berriak baitira. Gauza berberak egiten emaitza berberak lortuko ditugu, eta ezin gara horrekin konformatu. Anbizio gehiago behar dugu.

Gure ardura da hedabideen

deialdia egitea. Hedabideena da, produktua, enpresa egiturak eta halakoak birpentsatzea, eta gero eta ikus-entzule eta irakurle gehiagorengana heltzea. Azken horretan eragin nahi dugu dagokigun arduratik eta daukagun erremintekin. Ez dira garai errazak hedabideentzat ere, baina euskararen ezagutza hazi eta hazi ari delarik, hedabideen erronka ere haztea izan behar da. Askotariko bezero multzo berrietara zabaldu eta horiek irabaztea dagokiela uste dugu, eta horretarako bidelagun izango dute hedabideek Eusko Jaurlaritza. Elkarlana baizik ez baita eraginkortasunerako bidea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzakook ondoan izango gaituzue, eta Tokikomik eta Hekimenek dakiten bezala, aurreratu genezake hedabideen egonkortasunean pentsatuz ahal bezain pronto urte anitzeko deialdia egitea dela asmoa.

Hilabeteak ditugu aurretik elkarlan zintzorako eta egon daitezkeen iritzi ezberdinak mahai gainean jartzeko.

Bukatzeran noa, zorionak saridunei. Mila esker Andoingo Udalarari beste hainbat gehiagotan -dagoeneko XXVI. edizioa da- saria eratzten egin duzuen ahaleginagatik. Ahalegin honetan Eusko Jaurlaritza ondoan izango duzue, etorkizunean ere. Mila esker epaimahaikoei eta mila esker guztiguztietan zuen arretagatik.

Hitzaldia bere osotasunean:







FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Heriotza, oroimena

Ramon anaiari: In memoriam

Ramon, joan zara bidaia luze bat egin ondoren. Beste batzuk bizitza zirkulu bat bailitzan irudikatzen dute, eta heriotza zirkuluaren bukaera litzateke. Zureak bira luzea egin du eta, modu horretan zoriontsua izan zara. Gainera, zirkulu horretan hasiera eta bukaera puntu berdinean kokatzen dira. Ikusia dut film bat zeinean izenburua honako hau-ze: Nire azkena nire hasiera da. Gizonaren bizitza kontatzen du eta hiltzear dagoenean horixe esaten du: bizitzako zirkulua ixtear dago.

Bada, bestalde, esaten duenik jaiotza eta heriotza elkarrekin sortzen direla eta biak batera doazela: jaiotza eta heriotza txanpon beraren bi aurpegiak. Gertatzen dena jaiotzari, bizitzari aurpegi alaiz begiratzen diogula; ez ordea heriotzari, bizitza bezain garrantzitsua den errealitateari. Heriotzari, nahiz eta hor egon, ihes egin eta heriotza bera ukatu egiten dugu.

*Bizitzak ez du geltokirik, abian darrai, erreka bat bailitzan badoa eta badoa, itsas zabalak hartzen duen arteino. Bizitza eta heriotza, heriotza eta bizitza elkarrekin jaio eta bidaikide.*

Anaia zaharrena zu eta ni gazteena. Aita emigrantea genuen eta ama gazterik edo ume ginela joan zen. Zu zinen etxeko buru. Gero bakoitzak bere bidea hartu genuen. Azken aldi honetan asko joaten nintzaizun. Egia esan, burua argi ikusi eta sentitzen nizun; eta joan ere, horrela joan zara natural eta sufritu gabe. Eta horrelako heriotzari heriotza duina deitu ohi zaio. Seguru nago zuk, zure barnean, ez ze-

*“Heriotzari, nahiz eta hor egon, ihes egin eta heriotza bera ukatu egiten dugu”*

nuela nahi sufrimenduaren bitartez bizitza luzatzea. Eta, sententzia dut azken orduan zure gain egon ziren medikuak ongi jokatu zutela, ezin baita, eta horretarako guztiok dugu eskubidea, bizitza edozein prezioztara luzatu. Zalantzarik gabe, hain ondo, hain duin hil zarela jakiteak zure senitateko lasaitasuna eman digu eta zure ausentzia faltan botatzen badugu ere, hain ondo joan zarela, bizitzaren zirkulua hain ondo itxi duzula jakiteak lasaitasuna eta bakea ematen du.

Heriotza eta oroimena. Bi hitz hauekin osatu dut izenburua. Gure izpiritua, pertsona orok duen dimensio hori, gorputz fisikoarena eta gogomarenaren bezalaxe, oroimen unitbertsal horretan galtzen da. Zu Ramon, niretzat oroimenez zara, gure Aita eta Ama diren bezalaxe, edota gure aurrekoak: gure zuhaitz genealogikotik sortuak izan garen eta izanen diren guztien oroimenean. Errespetatzen dut nork duen Oroimenaren bizipena. Hala nola, katolikoek oroimen horri beste mundu bateko zentzua eman ohi diote. Mundu erreala, diot nik. Eta horrela mintzatu zen Urnietako apaiz gaztea. Eta hortaz hitz egin ere hitz egin genuen baina, noski, elizan bera denez jaun eta jabe, berea eman zuen.

Niretzat Ramon, Oroimen zara eta Oroimenean izango zaitugu.

Horregatik Ama Lurrak har zaitzala magalean. Adiorik ez!!! Beste honako olerki honenkin bukatu nahi dut:

Udako Eguzkia zeru ertzean izkututzen den bezala  
Ama Lurraren babesean isil eta apal desagertu zara.  
Baina zure bihotza  
Eguzkiaren argi beroa bailitzan,  
egunak joan egunak etorri gure bizitza berotuz igaro da.  
Ziur, eguzkia egunero jaiotzen den bezala,  
Zu ere gure artean izango zaitugula.

## HITZ-GEZIDUNAK

\* Baserritar eta sagardogile andoaindarra

		* DEITURA	Eguraldi	Azeri bizkaitarra
		Bukatu	Erantzulea	Itxura
		Ez emea		
		* IZENA		
Meza emaleak	Oinarriko edari	Txistu, listu	Errepikatuz, gorotza	
Erretxin	Urrun	Egoskin mota	Kontsonante bikoitza	
				Inuiten etxebizitza
Argonaren ikurra	Edateko gogo			
Jira, itzulia	Txistu			
		499	Zilarra balio du	
		Igarobide	Barrea adierazteko	
Eraikin mota		Urbe Kosta		50
Barreiatu		Nor pluralean		Titaniaren ikurra
Kilikagarria				

## HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

**EZKER ESKUIN:** 1.- Bakoitzari hamabost. 2.- Bokal meheena. Txikiak. 3.- Sodioa balio du. Ortografia ikurra. 4.- Daukat. Iragazi, isurkari bat iragazkitik pasarazi. 5.- Hizki baten izena. Arlo. 6.- Nafarroako udalerria Estellerriko erriberan. Bizkaitarren bikea. 7.- Abantoko auzoa. Interjekzioa. 8.- Elkarte. Bokala. 9.- Ezin nekatuzkoa.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Asiako penintsula handia. 2.- Bokala. Frantziako eskualdea. 3.- Bokalik gabeko meta. Doktoretza lor-tzeko ikerketa-lanak. 4.- Ate, hitz elkarteetan. Emakume izena. 5.- Iraun. Hego Amerikako mendialdea. 6.- Antezlan dramatiko. Bizkaiko mendia. 7.- Izenpetu. Atx! 8.- Naiz, baina haiei. Nitrogenoaren ikur kimikoa. 9.- Akuiluaz ziztatu.

## GOITIK BEHERA

Goiti eta beheti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

1. Landare belarkara, janariak ontzeko erabilia. 2. Nafarroa Behereko udalerria, Agaramonten. 3. Gailen. 4. Ipar EH-n, ordu. 5. Zoro. 6. Nafarroako ibaia. 7. Ez hotza, ez epela. 8. Gehiegi. 9. Ahapaldia.

## ERANTZUNAK

Oregano. Erango. Goren. Ore. Ero. Ebro. Beroa. Sobera. Bertsoa.

Akulitua.


Arnaia. 5. Bizl. Ande. 6. Opera. Diz. 7. Sinatu. Ait. 8. Natzaie. N. 9.

**GOITIK BEHERA:** 1. Hindustan. 2. Avenne. 3. Mt. Testak. 4. Ala.

5. Uvea. Aial. 6. Sesma. Uia. 7. Triano. Et. 8. Anaidia. U. 9. Nekazina.

**EZKER ESKUIN:** 1. Hamabost. 2. 1. Tipiak. 3. Na. Azentu. 4. Dul. frazi.

L	U	K	I	A					
G	T	A	K						
A	A	R	R	O	N	K	E	R	I
A	M	A	R	D	O	N	K	E	R
A	A	R	R	O	N	K	E	R	I
A	A	R	R	O	N	K	E	R	I
A	A	R	R	O	N	K	E	R	I
A	A	R	R	O	N	K	E	R	I
A	A	R	R	O	N	K	E	R	I
A	A	R	R	O	N	K	E	R	I



San Juan sua, jaiak, Falcons de Vilafranca,...

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA  
**Aiurri**







# KIROL ALBISTEAK

## Finalak Sorabillako jaietan



Loidi anaiak eta Eskudero anaiak aurrez aurre. Urdinek irabazi zuten.



Ainara Loiarte-Irati Amondarain eta Izarne Oiartzabal-Ainarika Abrego.



Bukatu gabe geratu zen Rekalde-Otermin eta Arruti-Alvarezaren arteko partida.



Mateo Ponce aritu zen epaile lanetan, nesken eta mutilen mailako partidatan.

Ilailera arte ez da jakiterik izango zein izango den Iturzaeta herri txapelketako irabazlea. Euria zela eta, finalurrekoak amaitu gabe geratu ziren eta, uda tartean izanik, finalak irailaren 5ean jokatzeko

ko erabakia hartu zuen antolaketa taldeak.

Emakumezkoen mailan, finala dagoeneko erabakita dago. Irailean buruz buru arituko diren bikoteak iazko berdinak izango dira: **Irati Amon-**

**darin-Ainara Loiarte** eta **Amaia Gonzalez-Garbiñe Ugalde**.

Mutilen mailan, **Jon** eta **Aritz Eskudero** anaiak finala jokatuko dute. Beste finalurrekoak amaitu gabe geratu zen, euria tarteko. Beraz, **An-**

**doni Alvarez-Imanol Arruti** eta **Aritz Rekalde-Otermin** bikoteen arteko partidaren erabakiko da hurrengo egunetan finala jokatzeko bigarren bikotea.

Argazkiak: Aiurri, Flickr.

## 3x3 saskibaloia



Uztailaren 14tik 24ra lagunarteko Street basket edo bestela ere ezagunagoa den 3x3 saskibaloia txapelketaren bosgarren edizioa antolatu du Andoaingo gaztetxeak. Zer esanik ez kirola eginez giro ederra sortu ohi dela Gaztetxearen kanpoaldean. Antola-

tzaileek adierazi dutenez, "gogoratu Gaztetxe 3x3 street basket txapelketan parte hartzeko izena emateko azken eguna hurbiltzen ari dela". Izen-ematea Gaztetxean, Olajaunan, Irunberrin, Lanbroan eta Ganbaran egin daiteke uztailaren 6ra bitarte.

## Esku pilota



Astezkenean jokatu ziren finalurrekoak Goiburun. Lehengoa, **Asier Gaztañaga-Eneko Aizpurua Oxtape** eta **Loidi-Julen Amondarain** bikoteen artean. Bigarrena, berriz, **Izagirre Kabra-Jon Oiartzun Jones** eta **Iker Etxeberria-Andoni Alvarez** bikoteen artekoa.

Finala ostiral honetan izango da 22:00etan hasita.

34 bikotek hartu dute parte aurtan, zenbait emakume ere tartean. Partida ikusgarriak ikusi ahal izan dira, eta txapelketak iraun duen asteetan pilota giro jatorra bizi izan da Goiburuko frontoian.



## Herri krosa Kaletxikin

Kaletxikiko herri lasterketa  
Ibilbidea: 6,4 Km.

1	Imanol Rojo	0:22:32	Tolosa
2	Josu Erkizia	0:22:39	Donostia
3	Mikel Albeniz	0:23:18	Donostia
4	Jon Lanz	0:24:11	Andoain
5	Aritz Garin	0:24:44	Villabona
6	Jaime Real	0:25:01	Andoain
7	Iker Gonzalez	0:25:37	Donostia
8	Mikel Eguren	0:26:08	Andoain
9	Carlos Garcia	0:26:23	Valladolid
10	Leire Fernandez	0:26:41	Renteria
11	Peio Alkorta	0:26:46	Andoain
13	Andoni Izagirre	0:27:34	Andoain
14	Bittor Uria	0:27:34	Andoain
15	Sergio Garcia	0:27:50	Andoain
16	Javier Ruiz	0:28:16	Andoain
18	J.M.Flamarique	0:28:26	Andoain
19	Eneko Aldaz	0:28:44	Andoain
20	Eva Pelaez	0:29:01	Andoain
21	Joxean Alberdi	0:29:02	Andoain
23	Xabier Berrueta	0:29:10	Andoain
24	Josu Mujika	0:29:18	Andoain
25	Angel Carrasco	0:29:35	Andoain
26	Jose Luis Calvo	0:30:18	Andoain
29	Ander Barragan	0:30:54	Andoain
30	Iñaki Etxeberria	0:30:56	Andoain
31	Amaia Lacalle	0:30:58	Andoain
32	Aitor Gaztañaga	0:31:17	Andoain
33	M.Fernandez	0:31:21	Andoain
34	Endika Huizi	0:31:24	Andoain
35	Jon Urdangarin	0:31:24	Andoain
37	Patxi Nieto	0:31:35	Andoain
38	Luis Lopez	0:31:38	Andoain
44	Ion Rodriguez	0:32:02	Urnieta
45	Rodolfo Parra	0:32:47	Andoain
46	J.M.Talavera	0:33:03	Andoain
47	Diego Barrasa	0:33:12	Andoain
48	Javier Gallo	0:33:29	Andoain
50	M.Gurrutxaga	0:33:46	Andoain
51	Gustavo Garcia	0:34:11	Errenteria
52	Ruben Nogales	0:35:32	Andoain
54	A.Urretavizcaya	0:36:53	Andoain
55	M.J.Nuñez	0:36:53	Andoain
56	Mikel Conde	0:37:17	Andoain
57	Alberto Solana	0:39:22	Andoain
58	Ramon Fuentes	0:39:22	Andoain
59	M.Rosa Roldan	0:39:55	Andoain
60	Xabier Lasa	0:41:48	Andoain
61	Amaia Lasa	0:41:48	Andoain
62	Ixiar Ansa	0:44:20	Andoain
63	G.Amotxategi	0:44:22	Andoain
64	B.Canflanca	0:44:24	Andoain



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etzez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
Webgunea: www.aiurri.com

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Izabea Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.com  
www.aiurri.com  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04  
**ISSN:** 1698-4870  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.



# Agenda

UZTAILAREN 3TIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Hitzaldia

**Andoain, Bastero**

Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak "Andoain aurrera" EAJk sustatzen duen zikloaren baitan, hitzaldia eskainiko du "Geroa gurea da" izenburua hizpide hartuta. 19:00. Bastero. Uztailak 3, osteguna.

## Zinema

**Andoain, Bastero**

"Oblivion", zinema kalean. Uztailak 9, asteazkena. 22:00. Goikoplaza. Euriarekin, Ondarretan.

## Odol emaileak

**Eskualdea**

Andoain. 18:30-20:30. Uztailak 8, asteartea.  
Urnietan. 18:30-20:30. Uztailak 14, astelehena.

## Azoka

**Andoain**

Bigarren eskuko azoka. 10:00-14:00. Zumea plaza. Uztailak 5, larunbata.

## Oharra

**Andoain**

Ataria Udal informazio bulegoaren ordutegia aldatu egin da. Aurrerantzean: 08:30-13:30.

## Bertsoak

**Urnietan, Besabi**

Sustrai Colina eta Amets Arzallusekin bertso afaria. Uztailak 4, ostirala.

## Jaiak

**Andoain**

Karrikako jaiak. Uztailak 18-20.

## Aisialdia

**Andoain**

**Uda Gaztea 2014**  
Uztailak 9, asteazkena: Piraguismoa Leitzaranen. Uztailak 10, osteguna: Goma Eva tailerra. Uztailak 23, asteazkena: Txapa tailerra.  
**Senda Vivara irteera:**  
Uztailak 16, asteazkena. Izena emateko azken eguna: uztailak 11. 943 300 746.  
**Gazte lokalaren udako ordutegia, asteartetik ostiralera:**  
10:00-13:00.

## Laguntza

**Andoain**

Udalak argindar kontsumoa ordaindu ezinik dardenei laguntza eskainiko die. Informazioa Ambrosia Olabiden. Epea: Uztailak 11. Ordutegia: 10:00-13:00.

## Aisialdia

**Urnietan**

Gaztelekuaren eskutik, datozen egunetan. Uztailak 4, ostirala: Fimo tailerra. Uztailak 7, astelehena: Globo guda, plastiko irris-takorra uraren gainean. Uztailak 8, asteartea: Makilaje tailerra, Uztailak 9, asteazkena: Amaiera festa.  
Udabentura, izena emateko aukera zabalik Gaztelekuan. Uztailak 14, astelehena: Hernaniko igerilekura. Uztailak 15, asteartea: Stand up paddle.

## Irteera

**Andoain**

Debara eta Ondarroara txangoa. Santa Krutz erretiratuen zentroak uztailaren 12rako Debara eta Ondarroara txangoa antolatu du. Goizean zehar Debara bisitaldia eta bazkaltzera Ondarroara. Menua: Entremesak, marmitakoa eta legatz solomoa labean. Ogia, postrea, edaria eta kafea. Bidaia txartelak dagoeneko salgai elkarteko tabernan, 13:30etatik 18:00etara. Prezioa: 37 euro. Irteera: 09:30, Olagain. Uztailak 12, larunbata.

## ZORION AGURRAK


**ONGI ETORRIA NAHIA**



Ekainaren 23an jaio zen **Nahia Barandiaran Gonzalez**. Zorionak maitia eta muxu handiak familiaren partetik. Zorionak gurasoei Igor eta Yolandari, baita birraitona-birramonari Marino eta Esther, aitona-amonei M<sup>o</sup> Carmen, Manolo, Espe eta Peiori.

**ANDOAIN-LARRAUL**

**ZORIONAK**



Ekainaren 28an **Elisabet Gallo Aizpurua** urteak bete zituen. Besarkada bat etxekoan partetik, baita **Oihana Delso Aizpurua**rentzat ere, zure lehen-gusua, egun berean urteak bete zituelako eta **Ainara Aizpurua Lorentek** uztailaren 2an.

**ANDOAIN**

**ZORION AGURRAK**

diseinua@aiurri.com



## Enplegua sustatzeko dirulaguntzak

Andoain eta Urnietako Udalek, enplegua sustatzeko asmoz, langabetuak kontratatzeke dirulaguntzak eskainiko dituzte. Tokiko enpresei zuzendurikoak dira, aipaturiko bailarako Lanbiden inskribatutako langabetuak kontratatzeke.

Enpresek Lasarte-Oriako Lanbideko bulegoetan lan-eskaintza zehatza aurkeztu beharko dute. Laguntza ekonomikoak ondorengoak izango dira:

- 3000 euroko gehienezko laguntza, 3 hilabete iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.
- 6000 euroko gehienezko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko. Bi kasuetan ez da kontratuaren kostuen %75 baino handiagoa izango.
- 9.000 euroko gehienezko laguntza, 6 hilabete edo

gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko, honako hauek kontratatzen direnean: diru-sarrerak bermatzeko errentako jasotzaileak, lehen aldiz laneratzen diren 35 urte azpikoak edo kontratazioaren aurretiko 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez Lanbiden inskribatuta eta lan eskatzaile moduan egon direnak. Azken zenbatekoa ez da %100 baino handiagoa izango. Kontratu partzialek %50eko lanaldia izan behar dute eta dirulaguntzaren erdia jasoko dute.

Enpresa edo profesional interesatuek eskaerak aurkezteko epea 2015ko maiatzaren 31 arte izango dute.

Argibideak:

**Andoain, Hilario Dorronsoro:**  
enplegua@andoain.org  
943 304 221.

**Urnietan, Lorena Etxezarreta:**  
letxezarreta@urnietan.org  
943 008 000.


EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO TWITTER ETA FACEBOOK GUNEETAN

# Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak

LIBURUA SALGAI

Aiurriko egoitzan galdetu:

Arantzibia 4-5 behea | 943 300 732 | idazkaritza@aiurri.com



Soilik  
15€ren  
truke